

argazkigintza > argi-itzalak

Gizakiaren eta herriaren batura

Ingurua eta pertsona uztartzea da Jose Criado donostiarraren pasioa. Azken urteetan, ordea, bidaia erreportajeak lantzen ari da batez ere.

IÑAKI GURRUTXAGA

Argazki bat ateratzea oroigarri bat gordetzea zen Jose Criadorentzat. Mendira joan, eta bi aldiz pentsatu gabe, argazkia atera. Oporretara joan, eta berdin. Praktika horrexek zaletu zuen, eta bere buruari «itxurazko» kamera bat erosi behar zuela esan zion. Mikel Mitxelena lagunak reflex kamera bat erosteko gomendatu zion, eta biak joan ziren Donibane Lohizunera (Lapurdi) makina erostera. «1981-82 urteez ari naiz hizketan. Orduan, jende guztiak han erosten zituen», zehaztu du.

Kamera «ona» erosi bai, baina erabiltzen jakin ez. Lagun beraren esanei kasu eginez, Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartearen lau hila-beteko ikastaroa egin zuen: alde teorikoa, negatiboak errebelatu

eta ondoren positibatu. «Garai haietan 90 lagunek ematen genuen izena ikastaroetan, ez da orain bezala». Ikastaroko ikasleen artean lehiaketa bat antolatu ohi zen. Norberak egindako erretratu bat aurkeztu beharra zegoen. «45 lagun aurkeztu, eta irabazi egin nuen. Orduan katigatu ninduen argazkilaritzak».

Zuri-beltzeko argazkiekin hasi zen. «Argazkiaren prozesua ikasi eta mundu hau ezagutzeko hori da egokiena». Berak bakarrik daki zenbat ordu pasa dituen gela ilunean. Diapositibetatik kolorezko argazkiak lortzen ere ikasi zuen, baina teknika «nahiko amorragerria» zela du gogoan.

Denetik egin du. Bodegoiak, erretratuak, estudioko argazkiak, paisaiak, makro-argazkilaritza... 1987an argazki erreportajeak lantzen hasi zen. Herrialde «exotikoetara» joan izan da, batik bat, lan horiek egitera, etxe ondoan duena ahaztu gabe. «Giza eta gizarte intereseko gaiak lantzea gustatzen zait, inguruan edo urrunean dagoena islatzea». Harrezkero, antolatu dituen oporraldi guztiak atera ditzakeen argazkien araberakoak direla nabarmendu du.

■ nortasun aqiria

■ **Izena:** Jose Criado Lorenzo.

■ **Jaio:** Donostian, 1952ko ekainaren 15ean.

■ **Ogibidea:** Errenteriako Niessen saltokian, mantentze lanetan.

■ **Argazkilaritza:** «Beste asko bezalaxe hasi nintzen argazkiak ateratzen, oporretan, txangoetan, mendian...». 30 urte egitear zela, bere lehen reflex kamera erosi zuen Donibane Lohizunen, Mikel Mitxelena kideak hala gomendatuta. Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartearen zuzendaritzako batzordekide da urte askoan.

■ **Sariak eta erakusketak:** 1982an egin zuen lehen argazkilaritza ikastaroa, eta ikastaroko ikasleen arteko lehiaketa irabazi zuen. «Horrek egiten dit ilusiorik handiena». 1987an Gipuzkoa Saria lortu zuen, «hemen irabaz daitekeen saririk onenetakoa da». Erakusketak prestatu izan ditu, baina ez da zalea. Eskatzen dizkiotenean bakarrik egiten ditu, «argazkilaritza denbora pasarako baitaukat, niretzat».

■ **www.federacionfotovasca.org**



Bidaia gehienak Mitxelena bere kidearekin egin ditu, eta «turista arruntek» baino gehiago gozatzen dutela dio. Horra azalpena: «Jendea ezagutu eta harremanak egin ditzakezu, baina argazkiak ateraz gero, bueltatzerakoan gozatzen jarraitzen duzu». Lehen haiek errebelatzen zituzten argazkiak, eta orain berriz, *photoshopen* tratatzen dituzte. Hala ere, kosta egin zitzaion Criadori digitalerako jauzia ematea, «hasierako kamerek ez baitzuten kalitate handirik eskaintzen».

Orain hiru urte, ordea, Haurralde izeneko erakundeak Angolan argazki erreportaje bat egitea proposatu zion, eta orduan erosi zuen kamera digitala. Baina ez zuen reflex motakoa erosi, «objektibo eta optika ona» duen konpaktoa baizik. Hala ere, biek lanean jarraitzen du, nahiz eta jakin badakien gizartea eta gizakia digitalaren munduari lotuago daudela.



Haize errota eta gaztelua Consuegra herrian (Espainia).



Etxeak bata besteari erantsita, Burgosko Frias herrian (Espainia).



Errenteriako (Gipuzkoa) pilotaleku zaharraren hondakinak.



Mopti (Mali, Afrika) haurren begirada zirri artean.



Angolako Luanda hiriko (Afrika) hiru neska siesta egiten, 'Egurraren Azoka' egunean.